

# *Merkatu segmentazioa*

Gure helburua familia eta jende gaztea erakartzea da. Familiek bilatzen dutena denbora elkarrekin pasatzea da eta guk hori eskainiko diegu modu berezi batean. Beste alde batetik, gazteak ere erakarri nahi ditugu. Haiek munduko leku gehiagorekin kontaktuan daudenez askotan kuriositate gehiago daukate leku haietako gauzak (janaria) dastatzeko.

Hori guztia jakinda, gure jatzeko menuak modu desberdinetan sailkatuko ditugu adina, alergien, etb. ren arabera.

- Menu normala izango dugu. Hau bezero mota guztientzat egokituta dago. Menu honetan mundu osoko hainbat plater desberdin izango ditu.
- Haurrentzako menu bat izango dugu. Haurrek ez dute helduek bezain beste jaten eta askotan janari sinpleagoak gustoko dituzte. Beraz, haurrentzako menua merkeagoa izango eta gainera, oparitxo bat emango diegu zein kulturako janaria eskatzen duten arabera eta oparitxo hori kultura horrekin zerikusia izango du. Herrialde horretako ipuintxo bat esaterako.
- Menu begano bat izango dugu. Beganismoa animaliarenganako errespetuan oinarritutako bizimodua eta filosofia da. Hori dela eta, zuzenean edo zeharka animaliak esplotatzen dituzten jardueretan ezin dute parte hartu beganoek, eta, beraz, animalien jatorria duten produkturik ez dute kontsumitzen. Guk animalia jatorri ez duten plater modernoak/originalak eskainiko diegu.
- Menu begetariano. Begetarianismoa osasuna eta jakien inguruko bizi-filosofia bat da. Haren oinarri nagusia haragia ez jatean datza eta begetarianoek ez dute animalien erabilera onartzen ez jateko baina ezta ere dibertsio iturri moduan.
- Zeliakoentzako menu bat izango dugu. Glutenarekiko alergiaren ondorioz sortzen da gaixotasun hau. Beraz, aria, oloa, edozein irinekin egindako produktuak, fruta lehor irineztatua, Jogurta zerealekin etab elikagai ezin dituzte jan.